

ILARGI GUZTIAK. TODAS LAS LUNAS

Fantasiaren soinekoa jantzita daraman drama intimoa

IRENE ELORZA

Igor Legarretaren (Leioa, 1973) *Ilargi Guztiak. Todas las lunas* filmak X. San Sebastian-Gipuzkoa Film Comission Saria jaso zuen atzo Zinemaldiren baitan. Ez da filmak lortu duen aitortza bakarra, izan ere, Ipar Amerikako generoko zinemaldirik aipagarri eta handienean sekulako arrakasta izan zuen, joan den abuztuan. Zuzendari onenaren saria, epaimahaiaren sari berezia Imanol Nabea argazkilaria-ri, eta nazioarteko film onenari publikoaren urrezko saria eman zizkioten Montrealgo Fantasia International Film Festival jaialdian. Kanadako zinema jaialdian euskarazko film bat proiektatzen den lehen aldian izan da. Hori-bera da lanaren berezitasunetako bat, euskaraz eta hitanoan filmatuta dagoela. "Pandemia zela-eta bi zatitan errodatu behar izan genuen eta film zaila izan da hainbat arrazo-

rengatik; horregatik, oso ederra da sariak jaso eta egindako ahalegina saritu egin dutela ikustea", adierazi du Igor Legarretak.

Filma maiatzean estreinatu zen, eta, Zinemaldiari esker, zinema aretoetara itzuli da egun hauetan. Espainia eta Frantzia arteko koprodukzio bat da. Azken karlistaldiaren amaieran girotuta dago *Ilargi Guztiak. Todas las lunas* fabula fantastikoa. Bakardadeaz, heriotzari beldurra izateaz, bizitzaren hauskortasunaz eta hilezkortasunaz hausnartzen du lanak. Tradizio banpirikoan oinarrituta, bestelako generoak nahasten ditu, tratamendu naturalista duen drama intimoa osatuz. "Badakit apustua hasieratik zaila dela, ziurtasunak gus-tatzen zaizkigulako; orduan, generoak nahasten badituzu orokorrean ez da erraza publikoarentzat. Baina hortik badator zerbait polita, ezberdina dena. Niretzat filma drama bat



Igor Legarreta zuzendari bizkaitarra.

ALEXABRIL

da, fantastikoaren soinekoa jantzita duen drama", esan du zuzendariak.

Itziar Ituño, Josean Bengoetxea, Zorion Eguileor eta, batik bat, Haizea Careros gaztea dira protagonistak. "Haiekin lan egitea gozamena izan da, den-denek egin dute lan handia", dio zuzendariak. Legarretaren aburuz, "inportanteena neskatoa zen, protagonista nagusia zelako; horregatik, kasting handi bat egin genuen Euskal Herri mailan eta, ondoren, Eneko Sagardoy eta Laia Ricart izan ziren *coach* lanetan hari laguntzen".

Paisaia filmaren beste protagonistetako bat dela esan daiteke. "Lokalizazioek agertokia aberasten dute eta kontakizunari kutsu magikoa ematen diote; haitzuloei, mendiei eta basoei esker hobeto ulertzen dugu pertsonaien mapa emozionala eta haien toki munduan", esan du Legarretak. Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan aurkitu ditu zuzendariak bere ipuin fantastikoa kontatzeko paisasiarik eta eraikinik aproposenak. "Ez da erraza izan garai hartako lekuak eta eraikinak bere horretan aurkitzea", gehitu du egileak.

Lau urte igaro dira Legarretak bere lehen film luzea, *Cuando dejes de quererme*, zuzendu zuenetik. Bigarrenaren erronka gaindituta, "Zinemak gure errealtatea hobeto ulertzen laguntzen gaitu, guk fikzioa eta fantasia erabiltzen ditugu gure errealtateaz hitz egiteko", dio zuzendariak.

fundación **sgae**
somos cine

Premio SGAE de Guion Julio Alejandro
Premio Dunia Ayaso
Laboratorio de Escritura de Guion de Cine
Ayudas a socios y socias de SGAE
Memoria Viva de la Cultura
SGAE en Corto
SGAE Documental
Sala Berlanga

69 | Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
Colaborador